

Ez ote jauzi kualitatiboa?

Berri txiki batek asko poztu nau. Elkar argitaratzaileak —zergatik ez esan izen eta guzti?— lagun bat hartu du, liburuaren promoziorako hartu ere. Liburu gehiago saltzeko, noski; alderdi komertziala hobeto zaintzeko, noski, esango du norbaitek. Bai, bai, halaxe da. Eta? Eta orain arte zergatik ez du, bada, honelakorik egin?

Alderdi komertzial eta enpresarialen gaineratik edo azpitik, berdin zait, albiste ona da euskal liburuarentzat. Albiste ona ez-ezik, urrats kualitatiboa izan daiteke; alegia, aldi berri batera igarotzea. Zergatik ez? Elai bakan batek ez omen du udaberria egiten, baina bai adierazten. Hain zuzen, horixe esan nahi dut liburugintzari buruz ere. Albiste garrantzizkoa da hau, ez bere horretan, adierazten eta iradokitzen duenagatik baizik.

Izan ere, eskasia guztien artean, promozioa du batez ere eskas euskal liburuak. Umezurtz jaiotzen da euskal liburua, lantzamendurik gabe, promoziorik gabe, inolako laguntzarik gabe. Ez informatu, ez promozionatu egiten du euskal editorialak.

Euskal liburua ez omen da ezagutzen, ez omen da saltzen. Nola, bada, horretan deus inbertitu gabe? Erdal liburuarekin ez da gauza bera gertatzen.

Berri pozgarria da, baita, liburugintzaren aurrerapauso bat suposatzen duelako. Euskal liburugintzaren normalizazio-bide luzean pauso bat da, zalantzatik gabe. Aurreragorik ba omen zegoen orain arte. Alderdi kuantitatiboak segurtatu direnean, alderdi kualitatiboak zaintzen eta lantzen gehiago axolatzeko orduak jo duelakoan nago.

Hutsune bat betetzeak, egoera berri bat adierazteak baino ere gehiago poztzen nau kasu honetan beste zerbaitek: ohitura berriak sor ditzake erabaki honek. Baliteke gainerako editorialek gauza bera egitera behartuak ikustea beren buruak. Eta baliteke, elkarren lehia honi esker, euskal liburugintzaren plataforma informatzaileak sortu ahal izatea. Plataforma informatzaile sistematikoak, esan nahi dut. Alegia, orain arte ezinezko gertatu izan direnak, batzuen eta besteen erruz. Begira nola. Eman dezagun *Jakin* bezalako aldizkari baten kasua. Liburugintzari eskainitako sail bat eratu nahi duzu: alde batetik, atera-berri diren liburuaren berri emanez, eta, bestetik, batzuen kritika eginez. Proiektu horren berri editorialei ematen diezu, beren laguntza eskatuz, noski: alegia, publikatzen dituzten liburuak hutsik gabe bidaltzeko. Bi argitaletzek erantzuten dizute, eta ez garrantzizkoenek. Historia hau ez da asmatua, gertatua da. Ho-

nela ezin sor daiteke plataformarik. Beharrezkoa da alor hone-tan ohitura berriak sortzea, eta agian *Elkar*-ek urratu du bidea.

Bazen garaia. Baina ez da beranduegi. Sorkuntzaren hamar-garren urteurrena ospatzeko modurik jatorrenetakoa iruditzen zait *Elkar*-ek egin duen hau. ■ *Joan Altzibar.*

Mendebaldea berriro demofaxismorantz

Historiak, nonbait, ez daki zuzen ibiltzen bere bidean, ezker-eskuin zambuluka joaten da, mozkorrak bezala. Orain eskuinerantz ari da crortzen, mendebaldeko histori zati hau behintzat. Ameriketatik Ingalaterrara, Frantziatik Alemaniara. Esan nahi bait du, Espainia deritzon moja-internatu horretan, betiko eskuin-zulotik irten beharrik ere ez dela egongo, gizarte progresatuenen parean aurkitzeko, eta laster nahikoa ezkerrean gabiltzala mundua, irudituko zaigula.

Richard Strauss eta Franz Lehar-en dantzak, Puccini-ren *Tosca*, Isadora Duncan: bai, alai estreinatu genuen mendea. Matisse-k etxe-jauregiak dekoratzeko estilo berria erakusten zuen *Parisen*, Gauguin-ek hegoaldeko itsasoaren margo beroak ekar-tzen zituen Europara, Picasso bera urdin zebilen. Laster ilundu zuen.

Sarajevo-n lehertuko zen hodeia. Trumoiak ikaratuta, mun-duko oilategia historiaren eskuin muturrean anparatu zen. Demokrazia liberal zaharra faxismoaren aterpean, demokrazia herriarra izan behar zuena stalinismoan, Amerika gazte libreak berak New Deal aldera jiratu zuen larri-larri. Denak eskuinean bildu ziren.

Beste Mundu-Gerra batek aterpe denak hautsi zituen berri-ro. Birreraikuntzaldi gorria iragan bezain laster, 50. urteetan, askatasunaren udaberri epela dastatu zen, jendeak ezagutzen ez zuen askatasun oparo eta eroso guri bat, aisiaz eta itsas balneario konfortez. Askatasun kontzesiboen euforia inkontzientea puztuz eta hanpatuz joan zen, bapatean izuaren izuz deskubritzeko, ezker muturreko amildegiaren arroka-punttetan ari omen zirela olgatzen arrisku izugarrian. Joa bait zuen kalean 68ko maiatzak.

Jendeak ez zuen, halere, astrapalada zoroan anparo bila ihes egin oraingoan. Geldi-geldi bere lekuan geratu zen, arnasa hartzeko ere beldurrez. Honez gero ez zuten Alderdi eta sindikatu zalapartari primitibo batzuek harat-honatarazten herria,